



**UMANDI GURASO ELKARTEA**

[www.umandi.net/ampaumandi](http://www.umandi.net/ampaumandi)

## **GURASO ELKARTE BILERA**

---

Umandi ikastolan 2013ko Apirilak 11 , eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuaz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Yolanda Castillo (diruzaina) Itsaso Imaz (idazkaria), Encarna Bonilla, Beatriz Sáez, Nagore Montoya, Alberto Torrecilla, Estivaliz Gavari, Juan Carlos Valero, Ainhoa Velez, M<sup>a</sup> Jesus Apodaca, Oscar García, Nerea Salazar, Peio Cernadas.

Hasiera ordua: 19:00.

Bukaera ordua: 20:30.

### **EGUNEKO AZTERGAIK**

- **AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA:**

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

- **IKASTOLAKO JAIA.**

Ikastolako jaiak Ekainak 15 ean ospatuko da, musika aparailua, ordenadorea, eszenatokia dagoeneko hartuak eta ordainduak daude.

Animaservicios empresarekin lan egingo da aurreko urteko prezio antzekoekin: Bi puzgarri montatuko dira, aurreko urtean bezala konsolak , aulkitxoak sartzen diren tokian kokatuak.

Bazkarirako lehengo urtean bezala Sarayola empresarekin bi menu egongo dira:

Haurrentzat: 10 €

- Makarroiak.
- Xolomoa patata frijituekin.
- Petit suise.
- Freskagarria.

Helduentzat: 15 €

- Sarrerarako: Kogolloak piperrekin.
  - Paella.
  - Albondigak.
  - Sorbetea.
- Nafarroko ardoa eta ura.

Mahaiak eta aulkiak Guraso elkarteak ordaintze ditu 1,60 € pertsonako eta tailerretarako erabiltzen dira.

Empresak berak ekartzen ditu zerbitzariak.

Maiatzak 6 an bidaliko da gutuna bazkarirako izena emateko.

Proposatutako tailerrak:

- Makillaje tailerra.
- Dordoka eta marigoringo tailerra.
- Harri margotze tailerra.
- Globoglexia.
- Estensio tailerra.
- Azukrezko kotoi tailerra.

Krosa Ekiñero proposatu zaio antolaketaz arduratzea eta zenbat ordainduko zaion erabakitzeke dago.

Saskibaloiko 3X3, mahai tenisa, tabernarako, aurreko egunean apaintzeko eta azken egunean garbitzeko jendea behar da.

- **ESKOLA KONTSEILUAN LANDUTAKO GAIAK.**

Aurten eskolak 2500€ jaso ditu Eusko jaurlaritzatik ornikuntza eta antolaketa partidatik, eskolak remanente handia zuenaren aitzakiaz. Denon eskolan dugun ordezkariak bertan galdetu zuen zer egin genezake eta bertatik proposamena errekurso bat egitearena da, gurasoi pasatzen zaien kuoten justifikanteak aurkeztuaz. Ikastolatik esan dute hurrengo kuotak ez sartzeko eskolako kontuan Guraso elkarteko kontuan mantentzeko. Baloratu egin beharko da bitartean diru horrekin zer egin.

Eusko jaurlaritzati esan da liburu solidarioaren kanpaina zihuraski aurten bukatuko dela.

Koldo Mitxelena ikastetxetik kanpora geratu diren ikasleen 12, 9 erreferentzi zentru izanik, egoerak berdin jarraitzen du, ez zaie konfirmatu sartuko diren edo ez. Koldo Mitxelena ikastetxeak idatzi bat egin du beste lerro bat zabaltzeko, baina egoera ekonomikoa dagoen moduan zaila ikusten dute. Umandi ikastetxetik ere gutun bat bidali da gure ikasleak onartuak izan daitezen.

Eskola kontseiluan gurasoen plaza hutsak betetzearen galderari, aztertuko dutela eta erantzungo dutela.

Baratzearen gaia pedagogikan planteatu da eta aztertu egin behar dute. Udaletxearen partetik prest daude eskolara etorri eta aztertzea.

#### - **BATZORDEEN EGOERA EGUNERATUA**

Jolase txokoaz ez da ezer atera, bainan egutegiari begira uztailleko lehen astean egitea zaila ikusten da klaseak ostiralean amaitzen dira eta gelak garbitzeko arazoak egongo direlako.

#### - **BESTELAKOAK**

6. mailako ikasleentzako sorpresaz hitzegin da

Goizeko gela zerbitzuaz galdetu da.

Liburuaren nazioarteko eguna ospatzeko Marivirekin, liburutegiko arduradunarekin hainbat bilera egin dira eta dena antolatua dago kurtso bakoitzean guraso bat joateko liburu bat aurkeztera.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat ematen da 20:30tan eta hurrengo bilera Maiatzak 2 arratsaldeko 17:00 tan izango da.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-